

Boric estimatua,

Nire izena Asel Luzarraga Zarrabeitia da, 2009 eta 2010 artean Araucania eskualdean urte eta erdi bizi izan nintzen euskal idazlea. Zehazkiago, bederatzi hilabetez libre eta beste bederatzi hilabetez Txileko Estatuak askatasuna lapurtuta bizitzea egokitu zitzaidan, Txileko Estatuan hainbat hamarkadatan deserosotasun politikoak baztertzeko ohitura izan den muntaia polizial ugarietako baten ondorioz.

Nire kasuan, nire idazkiek eta nire filiazio anarkista publikoak eragin zuten ni ikertua, ondoren auziperatua eta azkenik herrialdetik kanporatua izatea, baina horren guztiaren berri liburu batean eman dudanez (*Los buenos no usan paraguas*, Euskal Herrian eta Argentinan ez ezik, nola ez, lehenengo aldiz Txilen argitaratu zena), Jaime Madariaga abokatuaren bitartez ale bat helarazteko baliatzen dut aukera, kasua sakonago ezagutu nahi bazenu. Liburu horrekin batera, Txilen argitaratutako fikziozko lanaren itzulpena ere bidaltzen dizut, *-La mentira en la sangre-*, aipatu prozesuak eta Txileko lurretan egin nuen egonaldi laburrak inspiratu zutena eta Temukoko espetxean preso nengoela zirriborratzen hasi nintzena.

Une honetan bi arrazoirengatik jotzen dut zuregan.

Alde batetik, espetxeratua izan ondoren, Txileko gobernuak berak (Michelle Bachelet presidentearen gobernuak, nire kontrako bilbea asmatu zuenak, eta Sebastián Piñerarenak, zigorra gauzatu zuenak) eta Txileko hedabide nagusiek terrorista gisa seinalatu ondoren, epaiketa osoan zehar agerian utzitako arrazoizko zalantzak absolutzioa ebazteko duen pisua erabat baztertu eta antzezlan-epaiketa batean kondenatuta, data haietan errotuta sentitzen nintzen lurralde bat uztera behartuta, bertan luzarorako geratzeko asmoa nuenean, eta, azkenik, Interpolen zerrendetan gertaera terroristei lotutako preso ohi gisa sartuta, nire auziak irekita jarraitzen du 2011n Txileko Estatuaren aurka salaketa bat aurkeztu genuenetik, kasua une oro inguratu zuten irregulartasunengatik eta arbitrariotasunagatik, eta haren ondorio nagusiak iraultzeko asmoz -oraindik ere debeku irmoa dago ni Txileko lurraldean sartzeko-.

Amerika arteko Giza Eskubideen Batzordeak (AGEB) 2019. urtearen amaieran kasua onargarritzat jo ondoren, zure gobernuari egokitu zaio gure aldetik aurkeztutako txostenari erantzutea, eta, agian, esan behar nuke ez dela harrigarria izan egiaztatzea zuk zuzentzen duzun gobernuak aurrekoen erantzun bera eman izana, terrorismoaren aurkako borrokaz mozorrotutako jazarpen politiko-polizialeko ekintza errepikatuak eta ondo ezagunak estaltzen dituen politika bera zeuen eginez. Aukera bat zen zure gobernuak gogoeta egin zezan Txileko Estatuak giza eskubideei egindako urraketak konpontzen hasteko moduz eta gobernuak berak egoera horien aurrean jokatu behar duen eginkizunaz, baina, zoritxarrez, alferrik galdu zen. Gogoan dut oraindik, 2009ko otsailean behin-behineko espetxealdia kendu zidaten unean, zorigaitzoko lurrikara gertatu baino astebete lehenago, epaitegitik irten nuenean, kazetari andanatik aparte, Alderdi Komunistak Santiagotik bidalitako kide batek estu besarkatu ninduela bere alderdiaren elkartasunaren keinu gisa, Txileko eskuin oligarkikotik eta Michelle Bacheleten gobernutik kanpo jende gutxik jartzen baitzuen -eta baituzalantzan nire eta nirearen antzeko kasuen atzean benetan zer dagoen. Zure gobernuaren bulegotik AGEBri bidalitako erantzuna ikusita, badirudi klase politikoak ahaztu egiten duela gobernu erantzukizunak hartu baino egun batzuk lehenago uste zuena.

Bestalde, 2019ko abenduan, kasuaren onargarritasun-epaiaren ondoren, "Asel terrorista? Mesedez!" kanpainari ekin genion Euskal Herritik. Haren barruan, eta hainbat lagunen ekarpen eskuzabalari esker, Erresuma Batuan eta AEBn argitaratu da orain zure eskuetara iristen den liburuaren ingelesezko edizioa. Jakina, kanpaina horren barruan kausa zabaltzeko beste kanpaina bat abiatuko dugu, eta bertan, besteak beste, Txileko egungo gobernuak nire kasuaren eta haren antzekoen aurrean duen jarreraren berri emango dugu.

Horregatik guztiagatik, iruditzen zait aukera ezin hobea dela zuk zuzentzen duzun gobernuak anbiguotasunik gabeko jarrera har dezan nire kasuari eta antzekoei buruz, zoritxarrez ugariak baitira. Gure auzian, AGEGk (Amerika arteko Giza Eskubideen Gortea) berak kondenatu zuen, lonkoen auzian bere epaia ematean, nire aurkako zigorra sinatu zuten epaileetako biren jarduna, eta

Txileko agintariak beraiek seinlatu dituzte nire aurkako muntaia antolatu eta fisikoki gauzatu zuten Carabineroseko zenbait kide, Sergio Moya nire auziko fiskal nagusia ere zipriztindu zuen Huracán operazioaren barruan, nirearen antzeko auziak muntatzeko sare bat eratu zutelakoan.

Gauzak horrela, nire abokatu Jaime Madariagaren bitartez eskatzen dizudana ez da, noski, indultua, zentzugabea baita hori. Erokeria hau hasi zenetik, nire helburu bakarra egia argitara ateratzea izan da: nire atxiloketa eta nire aurkako karguak muntaia politiko-polizial baten emaitza izan zirela, Txileko Estatuko egituretatik zuzenduta, eta nire kasua Txilen hainbat hamarkadatan zigorrik gabe gertatzen ari direnetako bat besterik ez dela. Indultu batek, beraz, nire asmoen antipodetan dagoen erruduntasuna neure gain hartzea dakar, eta gainera ez lidake inolako onurarik ekarriko: legez kondenatuta agertzen jarraituko nuke, zerikusirik ez dudan gertaerengatik, eta nire izena Schengen espaziotik ateratzen den edozein bidaiatarako buruko min bihurtzen den zerrenda batean geratuko litzateke, lurralde askotan sartzea zuzenean eragotziz. Gainera, jakina, indultu batek ez lidake ordainik ekarriko jasandako kalteengatik, eta ez litzateke batere lagungarria izango Txileko indar polizialen errepresio politikoa jasan duten eta jasaten ari diren pertsona ugariantzat.


Uste dut, ordea, badirela zure gobernuak kasu honetan hartu ahalko lituzkeen bi bide, bateratu hartu beharrekoak, ustez konplize izan nahi ez duzun kalte batzuk konpontzen laguntzeko.

Bide horietako bat litzateke gobernuak AGEBn zabalik dugunari amaiera jartzea, oraindik zabalik baitago Txileko gobernuak zabalduko auzian atzera egiteko eta egindako akatsak eta eragindako kalteak aitortu eta konponduko dituen irtenbidea negoziatzeko epea. AGEBren aurreko demandan aurrera jarraitzeak, orain arte erakutsitako gidoi berari jarraituz eta estatu-interesaren defentsaren logika gaiztoan tematuz, zure aurrekoen jarraitzaile leial eta egiaren estaltzaile gisa kokatuko zintuzkete zu -presidentea zaren aldetik- eta zure gobernuak.

Hala ere, nire kasua ez da bakarra, eta euren bidezko borrokaren ondorioz zigortutako eta nirearen ildo bereko muntaiak pairatutako pertsona gehienek ez dute, ziur asko, europar batek etxetik eta eroso borrokatzeko duen aukera euren bizitza etengabeko mehatxuan sentitu gabe (Txileko Estatuaren terrorismoa ez zen Pinocheten diktadurarekin batera amaitu, eta biktimen arrastoa luzatzen ari da oraindik). Horregatik, uste dut zure gobernuaren ardura izango litzatekeela ikerketa-batzorde independente bat eratzea, azken hamarkada hauetan politikoki jazarriak izan diren eta muntaia polizialak jasan dituzten pertsona guztiek euren lekukotasuna beldurrik gabe eman ahal izan dezaten eta hainbat estamentutako kideen jarduna (epaileena, fiskalena, polizia-kidegoetako agenteena...) oztoporik gabe ikertua izan dadin. Justizia egintza bat litzateke hori, estatuek ohituak gaituzten mendeku ekintzen ordez.

Espero dut gutun honekin aspertu ez izana, ezta denbora lar kendu ere, eta liburuen irakurketaz gozatzea, edozein bide hartzen duzula ere. Jakina, *The good don 't use umbrellas* zabaltzeko nazioarteko kanpainari ekiteko garaian, zure erantzuna aztertuko dugu. Honekin batera doakizu haren diseinua.

Adeitasunez, agur.



Asel Luzarraga Zarrabeitia